

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko ekainaren 12a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Bortziriak • Ttipi-ttapa TB emititzen hasiko da datorren astelehenean.
Ana Diez de Ure • «Emakumea publikoan agertu denean ere baztertua izan da».

Bardeak: antolatzeko bidean



• MIKEL SAIZ

Nafarroako hego-sortaldean kokatzen diren Bardeak antolatu eta kudeatuko dituen plana onartu eta egin du Bardeetako Batzarrak. Herrialdean behetik gora egiten den lehenengoa bada ere, kritika franko jaso ditu. Planak deus gutxi dio han kokatzen den Tiro Eremuaz.



Betelu • San Donatoren baseliza berritu dute

Duela 800 urte eraikitako ermita da, eta premia handia zuen

**San Donatoren
baseliza konpondu
eta berritu egin du
Beteluko Udalak,
Gobernuak
langabetuentzat
emandako
dirulaguntza bati
esker.**



Donato Deunaren baseliza berrituak itxura ona du orain.

• URKO ARISTI

IRULEGIKO GAINEAN DAGOEN SAN Donatoren ermitatxoa, inguruko eraikuntzarik zaharrena omen da, zonaldeko agureen esanetan. XVII. mendeko kristauek eraiki bide zuten. Ordukoak dira ere, baseliza honen zatirik zaharrenak: absidea, sabaia eta aldea, alegia. Erromaniko garaioa da ere, Arrosarioko Ama Birjinaren irudia. Dena den, aurtengoa ez da baselizan burututako lehenengo berrikuntza. 1545ean, handitu egin zen orduan txiki-txikia zen elizatxoa, eta 1756ean berri, eta Iruñako artzapezikua-aren aginduz, konponketa lanak egin ziren bertan. Eta azkenik, duela 100 urte, Migelarena familiak eskaintako erretaula bat jarri zen aldairearen erdi erdian.

Irulegiko gainean kokatua dago, Betelu eta Errazkin artean, mendian galduta egongo balitz bezala. Aspaldian handik pasatzen zen, nonbait, galtzada edo erregeen bidea. Hasiera batean, ez dago oso argi Errazkin edo Beteluko lurretan ote dagoen. Izan

ere, kondairak dioenez, aspaldi batean, Errazkingo lurretan zegoen kokaturik, eta baseliza honen inguruan auzotxo txiki bat ere bazen. Baina, zoritxarrez, bertako bizilagunak, lepra epidemia bat jota, gaixotu egin ziren. Gutxinak, denak hil omen ziren. Azkenean, lagun bat baino ez zen geratu bizirik. Hark, orduan, errazkin-darregana jo zuen laguntza eske, baina herritarrek, gizon gaixoa madarikatuta zegoelakoan, ez zuten herrian onartu. Hori ikusirik, Betelura jo zuen. Beteluarrek zaindu zuten bere azken egunetan, eta ondorioz, hau hildakoan, Beteluko herriak jaso zituen bere ondasunak, herentzian.

Aspaldi honetan, nahiko egoera txarrean zegoen San Donatoren ermita. Izan ere, paretak ia-ia

erortzeaz zeuden, eta teilatua ere nahiko gaizki zegoen. Herriko apaizak, Kepa Ezeolazak dioenez, «horrelako elizatxo dotorea izan, gure arbasoek hainbeste maite zutena, eta egungo egoera ikusirik, negargarria gertatzen zen».

Orain ordea, oso bestelakoa da baselizaren itxura. Iaz hasi ziren berritze lanak, duela gutxi bukatu dira. Nafarroako Gobernuak langabetuentzat emandako dirulaguntza bati esker, udan zehar, herriko zenbait lagun aritu ziren kanpoko egitura konpontzen: teilatua, paretak... Urtean zehar, berri, barrukaldea konpondu da. Egurra da nagusi, orain, elizaren barruan. Izan ere, pago baten enberraren zatiak betetzen du alda-reko mahaia. Zirioa eusteko erabiltzen den kandelario luzea ere,

egurrezkoa egin dute, eta sabaia ere egurrezkoa da. Beste aldaketa aipagarri bat, aldareko paretarena da: aspaldiko erretaula kendutakoan, leiho berri bat agertu da, eta beteluarrek, leiho hori erresetatzea erabaki dute.

Aurrerantzerako, asmo berriak ditu Beteluko apaizak, Kepa Ezeolaz. «Orain elizatxoa txukundu dugunez, polita izango litzateke urtero urtero bertarako erromeri bat ospatzea. Lehen bai, Errosarioko amari eskaintako eliza, herrian bertan zegoenez, jendea joaten zen hara, baina San Donatoren urrutu xamar dagoenez... Baina hura ere gurea da. Beraz, hura ere zaindu beharko genuke aurrerantzean».

→ Urko Aristi

Altsasu

• Mendi

Bizikleta
ibilaldia

eginen da etzi

ALTSASU, OLAZTI ETA URDIAIN-go parajerik ederrenak mendi bizikletaz zeharkatuko dituzte hainbat txirrindularik etzi. Burunda txirrindularitza taldeak antolatzen duen 40 kilometroko ibilaldia arrakasta handia lortu du hasieratik ibilbidearen edertasunagatik. Lehenengo urtean 350 partaide izan ziren. Iaz, berri, 460. Partaideek 14 urte baino gehiago behar dute izan. Federaturik daudenek 1.300 pezeta ordaindu behar dute, eta federatu gabekoek 1.500 pezeta. Izena igandean bertan eman behar da goizeko 8:30etatik 9:15ak arte. Ibilbidea egin ahal izateko kaskoa derri-gorrezkoa izanen da.

Burunda txirrindularitza taldeak hirugarren aldiz antolatu du eginen den mendi ibilaldia eta egun batez, behintzat, Altsasu mendi txirrindularien topagune izatea nahi luke. Iaz bezala, aurtan ere Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Errioxa, Burgos eta Kantabriako txirrindulariek parte hartuko dutelakoan daude antolatzailleak. Iaz parte hartu zuten kirolarien erdiak Nafarroa bertakoak izan ziren, gipuzkoarrak 105 eta arabarrak 97. Laisterketak 1.600.000 pezetako aurrekontua du. Altsasuko Udala eta Iruñeko Kutxa dira ibilaldiaren babesleak. Nafarroako Gaztediaren Institutuak, Altsasuko Kirol Patronatuak eta Urbasa Moto Clubak antolatu dute.

→ Amaia Amilibia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Oraindik orain, Woody Allen infemura jaitsi da (edo goian dago?). Newyorktarrak usategabe bat edo beste hartzen du, eta guri algarra egiteko proportzioa eman digu; izan ere, oso zaila izaten da algarari eustea biziki gorrotatzen duzun norbait zulo kiskalgarriak ikustean. Hala gertatu zaigu Woody Allenen infemuran metakrilatozko altzariak diseinatu zituenan izerditan ikusi dugunean.

Infemua. Jende asko kabitzen da infemuran. Oka egiteko joera zuen filosofo frantses hark esan moduan infemura *besteak* dira, eta *besteak* beste guztiak izan daitezke. Beraz, ez izan dudarik, guzti-guztiok beste norbaiten infemuran egonen gara.

Kirol gisa ez dago gaizki. Lasaitu ederrak eskaintzen dizkizu: hau eta hau zulora. Zeruak ere berdin balio lezake. Biziraupen kontua da, azken batean.

Infernuan

Fobia eta filia markatuak izatea mesedegarri omen mundua ulertzeko ahaleginean. *Beste hori* ahazteko, izutzen gaituen horretatik babesteko modu bakarra izan daiteke askotan.

Nire lagun baten aspaldiko ametsa Izugarrien Museoa osatzea da. Gustu txarreko edozein gauza sar litekeela esaten digu. Asmo horren jakitun gaudenok proposamen ugari botatzen diogu. Izugarrien bildumak, neurrian jarriak, barraketako tunelen ahtzera oso barregarriak izan daitezke. Gainsosiak saihestea komeni da, ordea, iritrik izura oso tarte txikia izaten baita.

Alabaina, nola erakutsi, ezin ukitutza? Non eta nola sartu, konparazio batera, *momenticoak* duen laztura guztia? Kalera jotzea izanen litzateke proposena. Hemengo *Horror Show*-a tonbola jartzeare-

kin batera hasten da eta erakuslehoetako jantzi zuri eta gorriek gaineratzen diote kolorea. Gauza guztiak gogoratzen dizute aste gutxiren buruan hasiko direla meza berriak, eta orduan nahasiko direla batzuen eta besteen paradisua eta infemura.

Denok baketzeko aukera ematen omen dute ospakizunek. Une zailetatik ateratzeko sailduaren ize-na oihukatze oihitura omen da. Okererako izaten da, mezara joaten denak eliza ikusi ere egin nahi ez duenaren alde otoitz egiten dueneko gertatzen baita.

Meza garestiak ateratzen dira, gainera. Aurtengoa berrehun eta hirurogeitabost miloi kostatuko zaigu. Geratu nahi ez dugunoi gure parte itzuli beharko ligukete. Ez dugu sobera urrutzea lortuko, baina guk aukeratzen dugun suak berotuko gaitu.

Bortziriak • Ttipi-ttapa, paperetik uhinetara

Astelehenean hasiko da emititzen Ttipi-ttapa Telebista

Hamasei urtez aldizkari bezala ezagutu badugu ere, astelehenetik aitzinera telebista moduan ere jaso ahal izanen da Ttipi-ttapa Bortzirietan.



Ttipi-ttapa Telebistak egunean ordu batez emitituko du.

● JAGOBA MANTEROLA

ORAIN BI URTE HASI ZIREN PRESTATZEN astelehenean egikarrituko den telebista. Lehen tresnak urte hasieran erosi zituzten, eta horrekin batera han-hemenka ekitaldiak grabatzen hasi ziren, inauterietan, ekitaldi berezietan, azoketan... Lau lagun ari dira guztia prestatzen ekainaren 15ean, 20:30etan, lehen emisioa emateko. Informatibo bat eta magazin bat aurkeztuko dute egunero-egunero, guztira ordubete inguru. Informatiboa aurkezten Estitxu Fernandez bertsolaria ariko da, eta magazinean kolaboratzaile talde bat ibiliko da erreportaiak, elkarrizketak zein mahai inguruak aurkezten eta prestatzen. Horrezaz gain, aldizkariako kazetariak ere telebistako lanetan jardungo dute.

Ikusentzunezko teknologiek egun dute garrantzia aintzat hartuta, herri telebistaren aldeko apustua egin dute. Bidea, baina, ez da erraza izan. Baztan-Bidasoa osorako behar zuen proiektutik bi

telebista sortu ziren: Xaloe Baztan eta Malerrekarako (azarotik martxan dabilena), eta Ttipi-ttapa, Bortziriak, Malerreka eta Iparralderako. Eskualde osoan (Baztan-Bidasoan) biztanle anitz bizi ez den arren, eta bi telebista egonik, proiektu bakarra gauzatzetik egon ez den arren, aurrerantzean elkarlanean zerbait egin daitekeela uste du Joxe Manuek Irigoien, Ttipi-ttapako zuzendariak. Horretarako urratsak ematen hasiak dira, Nafarroako bi telebista hauek ez ezik Aldudeko Aldudarrak, Oarso telebistak eta Arrasate telebistak, euskarazko herri telebisten sarea osatzeko, eta zenbait programa trukatzeko.

Malerekan antenarekin zenbait arazo izan duten arren, epe motzean ikusi ahal izanen da telebista. Iparraldean Larrunen antena jartzea lortzen denean ikusi ahal izanen da, orain emisioak Lesakako Frain mendian dagoen antenatik egingen baitira. Telebista 49. kanaletik ikusi ahal izanen da, eta antena kolektiboa dutenek doikuntza tiki bat egin beharko diote.

Finantziario gehiago behar

Ttipi-ttapa Telebistaren egitasmoarekin hasi zirenean, finantziarioa gainditu beharreko kontua izan zen. Hortarako izen bere-

ko fundazioa sortu zuten. Bertan biltzen dira telebista, aldizkaria eta kultura zerbitzuak; inprenta eta grafikagintza lanak egiten dituen zerbitzua. Hiru finantziabide izanen dituzte: publizitatea, laguntza instituzionalak eta fundazioak berak dituen bazkideak.

19 milioi pezetako aurrekontua dute telebista martxan jartzeko. Nafarroako Gobernuak iaz aldizkariako 8.200.000 pezeta eman zizkien; aurrean, ordea 7.300.000 eman dizkie, eta 800.000 pezeta telebistarako. Europako Batasunak, bertzalde, 3 milioi pezeta emanen dizkie.

→ Jon Abril



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Emakumea eta lantegia

Ttipi-ttapa hamabostekariko azken zenbakiak eskualdeko emakumeek bertako lantegietan betetzen duten lekua aztertu du azken zenbakian: «Komunikabideetan eta karrikan aunitz solasten da sexuen arteko berdintasunaz. Emakumearen eskubideen alde toki guzietan aintzinpauak ematen ari dira, pixkanaka-pixkanaka zenbait kasutan, nabarmenago bertzetan. Lan munduan ere bertze horrenbertze gertatzen ari da. Gero eta harridura guttiago sortzen digu kamioia edo autobusa gidatzen emakume bat ikustek. Lantegietan ordea, industrian batez ere, alde nabariak daude oraindik emazteki eta

gizasemeek duten presentzia eta kopuruetan».

Beste batzuen artean, Aceralia lantegiko adibidez aztertu dute **Ttipi-ttapa**-koek: «Aceralia Legasa, Zalain eta Lesakan dituen lantegietan, errate batera, ez dago emakume bakar bat ere makinekin ari dena. Guztira 75 emakume egiten dute lan Aceralian, zerbitzu desberdinetan, bulegoetan, garbitze lanetan... Gizasemeak, berriz, 1.200etik gotti dira».

Aceraliako bulegoetan lan egiten duen Mari Karmen Prieto beratarren iritzia jaso du Ttipi-ttapak: «Nik uste dut Aceraliako lanpostu gehienetan emakumeok berdinduta egiten

hala genukeela lan gizonen lanpostuetan. Bada pisu handiak erabili behar diren makina bat edo bertze, eta lanpostu horietan agian ez, baina gehienetan lasai ederrean aritzen ahal izan emakume bat gizona bezalaxe».

Lantegian emakumeak gizonen pare direla uste du Lurdes Etxeberria Alcoko langileak ere: «Alcon gauden emakumeok ia-ia denetik egiten dakigu. Badago *kateako-lanean* emakumerik jartzen ez duten posturen bat, baina bertzenaz igual-igual aritzen gara emakume eta gizasemeak. Kamiona kargatu behar bada ere, ez dute begiratzen emakume edo gizona den».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Tuntun baten eritzia.

Igandean ABC egunkarian AEK-ko liburuak salatzen zituzten. Arrazistak omen dira. Historia kontuetan partzialak. Euskarari buruz biktimistak eta Espainiarrekiko iraingarriak. Betikoa, azken finean.

Kazetari horiek ideologizatu egi daudela bistan da. Artikulu (bi liburu ireki eta *Ikerketa lana* deitzen diote) aurreiritziz josita dago. Guztiz analfabetoa da. Guztiz.

Liburu horietan nik egindako marrakzi pilo bat agertzen dira eta horietako bat bakandu eta argitaratu dute salaketari indarra emateko. Nire ustez ez dute lortzen: pikoletorrun bat ageri da eta kitto. Benemerkako poster batean ez zutela aterako ulertu dezaket, bale, orain... iraingarria ere ez da. «Aurpegia gaiztotua du». Bueno. Baina orrialde horretan bertan agertzen ziren hamabi pertsonaiek aurpegi bera azaltzen zuten. Gainera, ze ostias!, kontrol batean dago. Zer espero dute, irrifartsu azaltzea?».


Jende ideologizatu egia horrelako mila azalpen eman behar zaizkie. Beraien ideiatik mundua hertsiki ikusten dutenak dira. Nafarroako Gobernuak antolaturiko komiki lehiaketa batean epaile egon nintzen behin, eta ezarri nahi izan zituzten zentsurak penagarriak ziren: sexua, politika, hitz gordinak. Jaime alkate zenean komiki batzuk sutara bidali zituzten emakume biluztuak agertzen zirelako. Ezkertiar batzuen ustez TMEO-ren atzean matxista koadrila bat besterik ez dago eta boikota egin behar zaie. Iruñeko Gaztetxean El Vibora komiki sexista batzuekin zer egin eztabaidatu, eta, azkenean, «giltzapetu» zituzten erabaki bat hartu arte.

Ideologia zehatzik ez duen jendea «gixajo tuntun» eta «pipiolo» batzuk izango dira: ez dira ohartzen... ez dakite... ez dute ulertzen... baina, mesedez, horrelako txorakerietan erortzen ez direla aitortu behar zaie. Ideologia bat izatea ongi dago baina tanto-tanto!. Ez dakit, askotan ideologia alde batera uztea ere ongi dagoela uste dut. ABC-ko kazetariak, esate baterako, ez al zuen irabaziko nahaste-borraste hori alde batera utziko balu?. Seguro baietz.

Bardeetako antolakuntza korapilotsua

Hainbat eztabaida sortzen ari da Bardeetako batzarrak egin duen antolakuntza eta kudeaketa plana

XXI. mendearen atarian, bi dira Nafarroako Bardeetako eramu zabalaren erronkak: Bardeetako Batzarrak egin duen antolakuntza eta kudeaketa plana onartu, gero ingurua parke natural bilakatu hala izateko, eta 2001ean Espainiako Defentsa Ministerioarekin duen alokairu kontratua bukatzerakoan, zein izanen den bertan kokatzen den tiro eremuaren etorkizuna.



NAFARROAKO HEGOSORTALDEAN KOKATUA, 41.845 hektarea hartzen ditu Bardeetako lurak. Basamortu itxura duten parajeengatik eta han 1951. urteik bizi diren militarrengatik ezaguna, inork gutxi daki, bi ezaugarri horietaz landa, lur eremu zabal hark natur baliabide eta aberastasun handiak lekutzen dituela. Hori bakarrik ez, ehiza, nekazaritza eta abeltzaintza ere badira lur sail horietako probetxu.

Guzti honetaz landa, zonaldeak badu beste ezaugarri berezi bat, jabetza eta kudeaketa modua, hain zuzen ere. XVI. mendera arte Nafarroako Erregearen jabetza izan zen eta hark erabilera pribilegioa lortu zuten ondoko herriei zenbateko bat kobratzen zien. 1705ean, Felipe V Gaztelako erregearen agindupean egoera aldatu egin zen. 12.000 errealean trukean jabetza onura ateratzen zuten herrietako bakarrik eta betirako izatera pasatu zen. Geroztik, 22 dira Erret Bardeetatik onura ateratzen duten komunitateak: Erriberako 19 udal, Erronkari eta Zaraitzuko bailarak eta Olibako Monastegia. Oraingoz behintzat, Nafarroako Gobernuak ez du eskuduntzarik bertan eta Bardeetako Batzarra edo Elkarteak da lur eremu zabalaren kudeaketa eta administrazioaz arduratzen dena. Batzarra osatzen duten bardeetatik onura ateratzen duen komunitate bakoitzeko ordezkari batek, eta guzti horien artean aukeraturako presidentek. Entitate honi dagokio aurrekontuak zein ordenantzak onartzea edo aldatzea. Batzarrak Orokorra urtean behin biltzen da edota zortzi udalek eskatzen dutenean, eta Batzorde Iraunkorra hilaibetan behin.

Planak ez du guztien nahai asetu
Zapel batekin hainbat buru estali ezin, eta uste



zen bezala Bardeetako Baliabide Naturalen Antolaketa Planak (PORN) ez ditu guztien nahiak asetu eta kasik 42.000 hektarea dituen luraren antolaketa eta erabilera hainbat irizitu ditu eta behin betiko onartzen den bitartean beste hainbat ekarriko ditu soka. Alenjandro Urmeneta Bardeetako Batzarreko biologiako eta Jabier Forcada Ingurugiroko teknikoa egin dute proiektua. Planean diotenez, egin duten banaketa «irizpide ekologiko, fisiko eta erabilera tradizioetan oinarritua dago». Planak zonaldea aktibitateen arabera sailkatzen du. Sektore guztiek lurraldea antolatu behar dela dioten arren, kritikak, batez ere, Bardeetan kokatzen den tiro poligonoaren inguruan esaten denagatik, eta hegaztiendako babeserako gune bereziak (ZEPAK) kokatzeko aukeratu diren tokiegiengatik etorri dira. Landazuriak hainbat alegazio aurkeztu zizkion planari baina gehienak ez zaizkiola aintzat hartu dio. Bardeak dituen 41.845 hektareetatik 12.508 mugatu dira ZEPA izateko, hau da, lurraldearen %3 baino gutxiago. Francisco Javier Donoso, Landazuriako kidearen ustean, Bardeak osoak hartuko lituzkeen ZEPA aldarrikatu beharko lituzkeen. «Estepako hegazti eta harrapariendako hain garrantzitsuak diren El Plano eta La Negra parajeak alde batera utzi dira, ez arrazoi biologikoengatik, baizik eta etorkizuneko proiektu ekonomikoetan pentsatuz, ureztapean edota azpiegiturak», dio. Lurraren higadura dela eta, Bardeak natur aberastasunik gordetzen ez dutela badirudi ere, hainbat hegazti (miru beltza, arrano beltza, Duponteko hegaxabala eta basolioa) eta narrasti gardatxoak, suge biperakara edota sugegorria) biltzen ditu. Planaren arabera, ZEPAK La Blanca Baja eta Plana de la Negra ren artean kokatuko dira, hau da, nekazal gune estentsibo berezietan).

80.000 uru inguru dituzten urteak. MIZ

tan behar ez bezala tratatu eta ibili direlako higadura eta herbizidak kalte handia egin die. Bestalde, urtean zehar 80.000 ardi buru ibiltzen dira Bardeetako larre eskasetan, eta irailen gehixeago trasumantzia datorrenean. Gariak eta garagarrik utzitako galondoa eta lugorriaren egoten diren lurretan, hain zuzen ere. Dena den, lurraldearen sailkapenak berak ez ezik, plana egin ondoren etorriko den parke naturala kudeatzeko aurreikusitako den entitatearekin ere ez dagoz bat ez talde ekologista ez eta Tiro Poli-

Go eta turismo gehiago

Nabaria eta jende gehiago hurbiltzen Bardeak bisitatzera. Turismo ondarra hartu du azken Basamortu itxura duen paraje bategi batez ere Euzko beste herrialde batzuetan joaten dira Bardeetako hamarkadan Frantziara hurbiltzen hasi ziren. Urtean 60.000 lagun inguru ziren. Planaren beste behar bat ezagutzera eman du. El Ferialeko Urtegiaren, taberna, kanpaldi bategi bat paratzeko asmoa duen alde, ondoko herrietara bultzatzeko egitasmoa bategi direla esan-

ten badu ere, askok El Ferialeko jarri nahi den turismo gunea kritikatu dute, Landazuria barne. Horren harira, plana egin baino lehen Nafarroako Ingurugiro Sailak lortutako baimen bati omen dagokio proiektua dela dio Gaiyarrak. El Ferialeko eraikina irailen irekiko da. «Orain arte bere kabuz eta egiten zen kaltean erreparatu gabe zebilen jendearen etorrera sailkatu nahi da» dio Gaiyarrak. Honetaz landa, bada Bardeetan bertan, etxolak alokatzen dituenik ere. Dena den, plana ibiltzen hasi besterik ez da egin eta etorkizunak esanen du nola kudeatzen den turismoa ere.


Bardeetan, nekazaritza estentsiboa da eta garia eta garagarria eriten da urtero eta behineko moduan, hau da, urte bat bai eta hurrengoan lugorriaren uzten da. Juan Antonio Gaiyarrak, Bardeetako Batzarreko presidentek dienez, egun 30.000 hektarea baino gutxiago lantzen omen dira, baina nekazari asko lurrrak kentzen ari dira ez direlako errentagarriak. 1200 nekazari eriten dute Bardeetan baina urtean abeltzaintzari lekua kentzen joan zaien lanbidea gainbeheran da. «Orain ez da errentagarria eta asko uzten ari dira Europak lehorreko laboreak uzteko dirua ematen duela soberan dagoelako», nabaritu du Gaiyarrak. Oso zigorituak dauden lurrrak dira eta gehiegi eta asko

gonoarean Aurkako Asanblada. Planak dio kudeatzaila Bardeetako Batzarra izanen dela. Nafarroan egin den behetik gorako lehenengo plana izanik, ona dela badiote ere, euren irudikoz kudeaketa beste erakunde berri batek egin beharko luke. Landazuriaren ustez, batzarraren jarrera «itxia eta despotikoa izan da». Euren aburuz, udal gehinetan ez da eztabaidatzen. Horregatik «ireki eta demokratizatu» behar dela azpimarratu dute. Milagros Rubio Tiro Poligonoaren Aurkako Asanbladako kidearen esanetan Batzarra ez da nahikoa Bardeak kudeatzeko komunal delako eta ez udalena. «Udala izan daiteke kudeatzaile bat baina beste talde batzuk ere egon daitezke aukide moduan. Gauzak dauden moduan oso garrantzitsua da ekologistak, antimilitaristak, nekazariak eta abeltzainak egotea udalereketakoez ez dutelako guzti horien jarrera ematen», dio. Iritzi horien aurrean, Juan Antonio Gaiyarrak, Bardeetako Junta presidentek inork ez duela kontrarik esan erantzun die. Legeak dio parke naturalak eratutako patronatu batek eratuko dituela Gobernuak eginen baditu, beste entitate batek eginen gero, oraingo kasu, beste modu batera eratu ahal izanen dela. «Jadanik badagoen entitate bat egonik beste bat sortu behar dela esatera datoz. 22 herri gaude ordezkatuak. Orain, falta da Ingurugiroko norbait, Tiro Poligonoaren aurkako asanbladako norbait eta nahi duen oro. Batzarrak erabakitzen du nor sartzen den. Juntaren funtzionamendua oso berezia da. Behin ere ez gara inoren menpe egon», dio irmoki.

Tiro poligonoaz deus gutxi
PORNa Bardeak dituen erabilera, natur baliabideak eta aukera posibleak jasotzen saiatu bada ere, zonaldean bortitza den erabilera, Tiro Poligonoaz, alegia, deus gutxi aitatzen du. Espainiako Aire Armadak frogak egiteko erabiltzen duen poligonoak 2.244 hektarea ditu eta Bardeetako Batzarrarekin duen alokera kontratua 2001an bu-

katzen zaio Espainiako Defentsa Ministerioari. Batzarrak 70 milioi pezeta inguru (2,8 milioi libera) jasotzen ditu arrendamenduagatik. Landazuria zein Poligonoaren aurkako asanbladak zehaztasun eza eta axolagabekeria leporatzen dio batzarrari. «Oso eramu zabala da eta funtsezko izan arren ez diote kasik kasirik egin. Esaten dute kontratuarena bukatu eta gero ikusiko dela. Ez dira bustitzen eta ez da aipatzen zein arazo dituen hango fauna eta lorendako eta bereziki biztanleentzako», diote Landazuriakoei. Tiro Poligonoa eta parke naturala bateraezina direla aintzat hartuz «gutxienez ingurugiro ikerketa serioa egin beharko luketela» dio Milagros Rubiok. «Gainera, ez dute esaten zer egiten den kontratua bukatu eta gero. Plana eta poligonoa bateraezina direla definitu beharko luke». Jarrera horren aurrean Gaiyarrak dago. «Data iristen deenean erabakiko da zer egin» erantzun du. «Ez da deklaratu parkea Espainiako Armadarekin kontratua bukatzen ez den bitartean, 2001ean. Orduan batzarrean dauden komunitate erabilizailak erabakiko dute, poligonoa dagoen parke geldituko den, babes figura bezala aldatu edo zalan mantendu. Planean ez da sartzen kontratua erabakitzeko dagoelako. Moldatzen denean ustezko kontratua erabakiko da». Nahiz eta Parlamentua, UPN bera eta Tuteria eta ondoko herrietako udalak poligonoaren aurka bozkatu izan duten aferaekin zer gertatuko den inork ez daki edo, behintzat, ez du esan nahi. Ildo honetan, Gaiyarraren erreferendum bati deitzeko aukera ere ez duela baztertzeko nabarmendu du. Bien bitartean, PORNaren tramitazioak aurrera darrai. Egun, teknikoak planari egindako emendakinen moldatzen ari dira eta ondoren batzarre pasako da behin betiko onartua izan dadin. Gero etorriko dira Ingurugiro Kontseiluaren, Gobernuaren eta Parlamaentaren oneritzia.

→ Irene Arrizurieta



Castildetierra monumentu natural izendatuko dute. ● MIKEL SAIZ

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Tartas Sohütarraz aipu lakar

Zubereraz libururik argitaratu zuen lehenengo idazlea den Tartasez ezer gutxi da iritsi zaiguna: XVII. mende hasieran Sohütan jaioa, Arüen, Mithikilen, Ospitalepian eta Atharratzen apeza egona zen, eta ez da ziurra gazte denboran soldadu ibilia zenentz, nahiz horretarako zantzuak egon



ESAN OHI DA TARTASENA ARGITARA ezarri lehenbiziko zubererazko liburua dela, eta guztiz egia izatearekin ber, behala datoz ipinki-bekatu tx Arüeko euskara Amikuztarra dela oroitarazten dizkigutenak, berebat Tartas berak esanikoak, hau da, «ene euskara eta lengajia eztaikit aprobatia izanen denez...» eta abar. Juan Tartas 1610. urte inguruan sortua dugu Sohütan laborari doi aberastu batenean. Ez zaiguke oharkabea pasatu, eta Leizarragaren kolaboratzaileen artean izen bereko herikiderik zegokeen Lafittek gogora ekarri bezala. Alabaina ezer gutxi haboro da Tartasi buruz iritsi zaiguna, damuz. Peillenek, ausartuenak naski, Henry IV.aren kin soldadu ibilia zelako susmoa ekarri zigun, haatik ez da gauza guztiz ziurra. Jakin badakigu, ordea, Oloroeko prebendadua izan ostean, Arüeko erretora izan zela 1641.eko abenduaren seitek harat. Ardura berriak ere bere gain hartuko zituen, eta 1662.ean Mithikilen nahiz Ospitalepean apeza izan genuen. 1673.ean, Atharratzeko eretore agertzen zitzaigun, eta 1683.ean oraino bizi zela, Oloroeko apezpikuari igorri gutun batean Zuberoako apezgoaren dekanotzat aurkeztu zuen bere burua.

Bi izan ziren karrikara atera zituenak, ezagun denez. *Onsa hilceco bidia* Orthezeko Jacques Rouyer erregearen inprimatzailea baitan ageri zen 1666.ean, Barkoxen zegoen Moneineko Urtubi jaun markisari eskeinirik. Bigarren lanarekin agitu ez bezala, honakoa behin baino gehiagotan berragertu digute. Bigarren edizio bikoitza J.B. Darricarrèrek egin zuen, *RIEV* aldizkariko lehenbiziko bost zenbakietan aldizka, eta jada liburu gisa 1911.ean Parisen ere. Hirugarrena, berriz, hegoaldean egin zen 1975.ean, Andolin Eguzki-

tzaren eskutik, Oñatiko Jakin sortaren barruan, eta Kintanaren sarreratxo batekin. Tartasen idazgintzan muturra sartu duen azkena Altuna izan da. 1995.ean *Ontsa*-ren laugarren edizioa egin zigun, Deustuko Unibertsitatearen gerizpean, eta geurtz ere,

Tartasen hurrengo liburuen bigarren edizioa atondu zuen Bilboko Mensajero argitaletxearekin. *Arima penitentearen ocupacione devotac* 1672.ean agertu zen estrainekoz, ber hiriko etxean, nahiz eta irakurle-ari Tartasek berak egin atarikoak 1667.eko data eramanean. Honakoa Hiruriko jaunaren semeari eskeini zion, Montmirandéko abadea zenari hots, ezen aita zein anaia hilik baitzeuden eskeintzaren jasoleak izateko. Biak famazko soldaduak izan ziren, aita Luis XIII.aren zerbitzuan, eta anaia Luis XIV.aren aginduetara, Polonian eta Hungarian turken aitziko borrokan hilik gertaturik. Bi ale besterik ez omen dira geratu edizio princeps horretatik, Julio Urkixok Ademari erositakoa, eta Vinsonek ezagutzen zuen bakarra, Sohütako medikua zen F. Etxegoihen batek 1766.eko otsailaren 24an sinatu zuena, eta orduz geroztik, Intxausperen eskuetaraturik, Abbadiak jaso eta Parisko liburutegi nazionallean pausatua izan zela. Liburukiarekin batera Intxauspek igorri gutunean, Tartasen gaineko lehenbizikoetako iruzkin kritikorekin egiten dugu topo: «Le fond du livre est excellent. La doctrine sur l'excellence de la prière du jeûne et de l'aumône est exposée de main de maître. Il écrit avec une science théologique peu ordinaire. Il agrément son instruction d'exemples


très bien choisis et très appropriés à ses enseignements, mais son basque est détestable, il emploie autant de mots français que de basque, tandis qu'au lieu de ces termes français il lui aurait été facile de trouver et d'employer des mots équivalents purs basques».

Egia esan, ez du zori onegirik gure Tartasek kritikogehientsuenek egin oharrekin, ia orok Axularrekin parekatu baitute, zuberotarraren kalterako izan dena usu. Mitxele-nak burugabekeri undats ugarrien jua-abastu zeritzon Tartasi. «La erudición que despliega Tartas resulta ociosa y extravagante, y en todo momento queda patente su gusto por lo extravagante, lo exagerado y lo tremendo, a la manera del padre Nieremberg». Juaristik, ordea, *Do it yourself* eiteko esku-liburuekin erkatu zigun, *colportage* literaturaren iturrietatik edan zituela baieztatuz. Guketz, ezin interesgarriago zaigu herri ahoko tradizioan Tartasen lanek zuketuen oinarria azpimarratzea, honako pasarte ezagun honek aisaegi salatzen digun moduan: «Egün batez español bat bere bidian zoala ediren zian hor bat borta batetan, eta horak üsiki zian española igaraitian zankotik, hor haren kontre aski onsa defendatü faltaz, bertze egün batez españolak hor hura bera ediren zian borta hartan berian lo zantzala eta ezpata baitzian bere saihetsian, idokirik eta bülüzürik bere magiñatik, eta bere furrebotik, hora hiltzian, ezpata kolpü bat emanik, eta gero ikhüsi zinian hora hilik, edo hilzen, erran zian horari, bere lengajian, españoloz, inimigos tienez e dormes, erran nahi baita gure lengajian euskaraz, etsaiak ükhen eta lo egiten dük».



etorri ahalean

Patziku Perurena



Lurrezko sinfonia bihotzean

HALATSUKO ZERBAIT izandu da nerezako toponimia, eta esan dezaket, ume umetatik mila akorde sekretuz osaturiko sinfonia lurrezko hori adituz hazia dela nere bihotz koxkorra. Baina ez da sinfonia hutsa, sekula guzian bihotzean eramanean dudana paisala polifonikoa baizik. Lekuizen ezagun baten aditze hutsak, ene gogoan baizik ez den koadro erromantiko bati begira paratzen nau xoratzen. Ongi pentsatzen jarriz gero, izugarria baita toponimo baten kargamen poetikoa: lur pusketan behiala animatu eta gizaldiz gizaldi, bihotzik bihotz, oraino gurean errotzerainoko indarrez dirauena.

Beren neurrikerik ederrena ematen die hitzei toponimia klasikoak: lekuan lekukotasun biziak. Ez dut uste baden libururik horretan, gure lur zaharra baino maisuagorik: jadanik honen astrazio huts bihurtu zaizkigun hitzak, beren sustrai poetikoz hornitzen, lur animatua dugu oraindik maisu. Euskal poeta guziak baino poetago iruditzen zait horretan gure lur hiztuna.

Baina zeinen gutxi eta gaizki poetizatu den gure toponimia, gure lur euskaraz humanizatua. Zeinen poema liriko gutxi idatzi diren zinezko toponimian oinarrituak. Badirudi euskaldunok ez dugula sinesmenik geron sen lirikoan eta poetika klasikoan, eta hori gabe, ez dakit nola idatzi liteken, esate bateko, poema liriko ederririk. Euskarak ez baitu eman, nik dakidala behintzat, Uxio Novoneira baten estiloko poetarik. Xabier Lizardi besterik da, eta baita abertzaletasunak gogaitzeraino errepikatu digun bukolismo folkloriko xuria ere.

Uste dut gure luraren zinezko tragediaren mintzo biziak, kasik muturik galdu zaigula. Eta orain akabo! Badatozkigu filologoak, euskalari doktoreak, kaleko mendizaleak, huri zikinetako ekologistak, biologo jakitunak... beren izen zerren-

da perfektoak, mapa esaktoak, alternatiba berriak eta turismo-bide seguruak eskuan dituztela, eta horra non, menderik mende gure lekuizenak lirismo xoragarriz barrendu dituztenei lurraren zientzia erakusten hasi diren!

Umetatik zaharren tragedi kontuak adituz Tronpata, Tronpaburu, Tronpatako Erreka, Tronpatako zubia lekuizenei begira hazia nauzu Goizuetan, eta geroztik maiz ikusiak neronek, bapateko uraldek eta ur zurrumbiloez urratzean, (Erreka Illuna edo Tulubion zokoa bitarteko) zeinen dotore jasotzen duten latineko tromba hitzaren zentzua. Euskal mapatan, halare, zuzendu usteko Tronpeta okertu mutu bat besterik ez dut sumatu. Hortan nabaritzen dira segituan, hitzak gogoan lurtuz hazi direnak eta paper hutsetik datozenak.

Holako jende gutxi ikusiko duzu, lurra beste libururik izan ez duen jakintsu xahar horiei gogobihotzak erne paratzen; gustoz eta plazerrez haien senetik ikasten. Ez, orain bapatean, inorante umilatu bihurtu dizkigute betiko jakintsu xaharrok; orain, kalekume tituludunen batek, funtzionari espainol euskaltzaleren batek, interpretatuko du gure bihotzeko mapa, eta guk ixildu egin beharko dugu ezinbestean. Euskara salbatu egin behar omen da, euskarak duen gauzarik biziena eta ederrena ukatuz, disekatuz...

Badatozkigu bai, alde guzietatik, eta euskal kontzintzidunak omen dira gainera denak, eta gure guraso umilatuak ixilean hiltzera doaz, euskararen poesidun kontzintzigabe horiek. Zorioneko kontzintzial Lehengoan leitzen nion Bernardo Soares: «La conciencia es signo de decadencia». Ongi bai halare; inon ez baitut sumatzen, esaldi horren egia mingarria, herriskotako euskararen agonian baino argiago. Eta «O tempora! O mores!» zoragarri hartan kontzientziaz leituak datozkit burura.

Ziria

• Motxorrosolo •

Hitz emana

BERDINTZEN HASKIAK GARA. USTELKERIARENA MUGARIK GABEKO JARDUE-
ra duzu. Iruñean mila kaka meta hainakoa. Urruñakoan hitz emandako lurra da kutsatu dena, gurean eraikinak harrika ere egiten dira. Nork egin ote du hizkuntza eta politikaren arteko lotura? Salaketak debekua dakar. Urruñea eta Iruñea, bi hitzordu.

Ana Diez de Ure Historialaria

«Publikoan agertu denean ere baztertua izan da emakumea»

Udalaren laguntzarekin kaleratu berri den *Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona* liburuaren egileetako bat da Ana Diez de Ure historialaria. Beste hiru lagunekin batera, isilik eta oharkabean emakumeak hiriburuan egin duten historia aberatsa eta ezezaguna azaleratu nahi izan du.



soslaia

● LUIS AZANZA

Grabagailuak ez du izutu eta gustora mintzatzen da egin berri duen lanaz. Emakumea eta iruindarra izanik, argitalpenean agertzen diren berri izaten gozatu duela nabari zaio.

■ *Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona* liburua egin duzu Silvia Fernandez, Paco Roda eta Sonia Pinillosek batera. Iruñeak ikertzeko duen historiaren zati oso esanguratsua berreskuratu duzue?

Bai. Orain Europan emakumearen inguruko ikerketak barra-barra egiten ari dira. Iruñean somatzen genuen falta hori. Emakumeak historiar zehar oso aukera gutxi izan dute beren hitzak, bizitzaren pasarteak eta historia plaza-ratzeko.

■ Zer kontatzen da liburuan?

Iruñean emakumearen presentzia nabaria izan da nonahi, baina orain arte egin duen historia isilean egon da. Leheneik eta behin, Erromatar garaiketik Guda Zibila piztu arteko emakumeen gora-beherak aztertzen ditugu. Bigarren atal batean jaso ditugu, 50 emakumeen biografiak, Iruñekoak zein hiriburuan eragina izan duten kanpokoak. Hirugarrenean bildu dira, hiriburuko karriken izenetan izan duten presentzia txikia, emakumeak monumentuetan eta hirian dituzten ibilbideekin bukatzeko.

■ Noiz izan du eragin gehien emakumeak Iruñean?

Prozesua ez da goitik beherakoa edo behetik gorakoa izan,

gora-beherak izan ditu. Boterean inoiz egon ez den arren, Erromatarren garaian oso presentzia inportantea izan zuen, oso aske bizi ziren emakumeak kalean. Erdi Aroko lehen mendeetan ere izan zuen presentzia nabaria eta Erdi Aroaren bukaeran baztertutagoak daudela nabaritu dugu. Aro Modernoari dagokionez topikoak hausten saiatu gara eta ohartarazten ez dela modernoa izan emakumeontzat, II Errepublikan salbu. Orduan emakume oso bikainak izan genituen, kulturean eta lanean oso presentzia handia izan zutenak.

■ Zein eragin izan dute liburuan agertzen diren emakumeak Iruñean?

Zein eragina izan zuten esatea zaila da. Nafarroako lehenengo ikastola Maria Biskarretetik sortu zuen. Atzetik ere beste emakume asko aritu ziren lanean eta hori ez da inoiz aipatu: Julia Fernandez Zabaleta eta Katalina Las-tuei, besteak beste. Gero, XIX. mendean sortu zen magisteritza eskolan emakume asko egon ziren. Kultura eta politika mailan zabaltzen eta eragina izaten hasi ziren. Historia gizonak zein emakumeak egiten dugu. Baina emakumeak aipatu digutu eragin handia izan zutelako Iruñeko bizitzan eta historian. Gero, Erromatarren garaian eta Erdi

Aroan kalean, dendetan, azokan emakumearen presentzia eta garrantzi ageriak dira. Txapitela kaleko zaindaria Otxanda emakumea izan zen, adibidez.

■ Emakumea, pixkanaka bada ere, esparru publikoan nabaritzen ari da. Ildo horretan, zer suposatzen du liburua?

Helburua emakumeak egindakoa kaleratzea gain, izan duen bidegabekeri historiko bat konpontzea izan da. Emakumea arlo publikoan egon da, baina ez da izan aipatua eta aipatu dutenean mespresuz aipatu dute. Gero ere, baloratu nahi dugu etxe barruko lana, bai neskame bezala, bai etxeko andre moduan. Beti pentsatzen dugu lan garrantzitsuen jendaurrean egindako lana baino atzean egindakoa ere goraipatu nahi dugu liburuarekin. Horregatik aipatzen dugu prostituzioa, neskame lana, lan horien bizitza. Esan nahi duguna da publikoan agertu denean ere baztertua izan dela. Emakumearen historia eginez bera non egon den esan dugu. Historia liburua begiratu eta ez da agertzen. Orduan non dagoen erreparatu behar duzu: azokan, kalean, dendetan, etxean eta publikoan, komentuetan... baloratu nahi ditugu toki horiek ere beti baztertutak izan direlako.

■ Liburuan agertzen diren emakumeak eta gaur egunekoak asko dute ikusteko?

Ana Diez de Ure iruindarrak Iruñean eta Salamancan ikasi zuen Historia. 33 urte ditu eta zazpi urteko alabatxoa. IPES (Gizarte Ikasketarako Talde Eragilea) elkarterko partaide da, eta bertako Historia departamentuan dihardu Emakumeen Historia irakasten.

Emakumearen inguruan ikertzeko asko dagoela dio. Egun, Nafarroako emakumeen biografiak egiten ari da, baina diru falta dela eta «ordenadorean gorderik» argitaratzeko emakume asko dituela dio umoretsu. Bien bitartean, liburuak iragan berri den Liburu Azokan izan duen arrakasta gozatzen ari dira bera eta ikerketako beste hiru lankideak.

Historia ikerketez landa, Euskal Filologia ikasten ari da Gasteizen. Duela hamar urte hasi zen euskara barnatzen eta Betelun ere egon zen bizitzen. Diez de Urek dioenez, alabaz gain, azken urteotan bere bizitza mugitu duten arrazoiak euskara eta emakumea izan dira.

koak bakarrik izan da, XIX. mendean emakume gehienak neskameak ziren eta kalean ez zuten presentziarik. Iruñean dugun historia 2000 urtekoa da. Erromatar garaian eta Erdi Aroan askatasuna zutela somatzen dugu jabetza asko zizutten emakumeak agertzen direlako baina praktikan emakumearen ahotsa ez da entzun. Testuetan beti gizonen ahotsa agertzen da, irakurtzen duguna gizonaren iritzia da. Somatzen dugu baina ez dakigu testuak eta iturriak gizonen egin dituztelako.

Bai. Emakumearen bizitza oso gogorra izan da beti. Lanean, lege aldetik baztertutak eta izurrite baten aurrean emakumea eta haurrak izan dira beti gehien jasan dutenak. Gaur egun gauzak asko aldatu dira baina kultura dator atzetik. Zergatik dago emakumea etxean, langabezian eta lan baztertuetan? beti egon delako. Alde batetik ikusten dugu bazterketak jarraitzen duela, eta, bestetik, emakumeak asko borrokatu dutelako haustura handia izan dela legeak aldatu direlako. Benetan haustura mende bate-

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Welcome to California

Kaliforniako biztanleak 227. proposamenaren alde agertu dira berriki. Proposamen honen arabera ikastetxe publikoetako irakaskuntza elebidunak (kasu honetan, gaztelera eta ingelesa) atzerapauso handia izango du, hezkuntza sistema publikotik ia desagertzera. Tristea da 227.aren aldeko botuemaleen artean ingelesa jatorrizko hizkuntza ez duten asko daudela jakitea, haiek *american way of life* horretara egokitzeko gaitasun behar izan dituzten oztopoetatik euren seme-alabak babestu nahian nonbait.

Kaliforniarrek egin duten hautu demokratikoaren aurrean inperioaldeko jankitsu franko, bizitza honek dituen paradoxak, minduta senditu dira. Elebitasunaren kontrako jarrera, aniztasun kulturalaren aurkako erabakia, injustizia handia euren ama hizkuntza gorde nahi dutenentzat eta abarrekoak entzun eta irakurri ahal izan ditugu erdal komunikabideetan. Bati baino gehiagori bitxia egingo zitzaion normalean beste hizkuntzekiko horren begirune gutxi duten hedabideak Kaliforniako etorkinen hizkuntz eskubideak horren sutsuki defendatzen ikustea. Baina kontuz, hizkuntza jakin bat da defendatzen ari zirena eta ez ordea gutxiengoen hizkuntz eskubideak. Hori gehiegi litzateke.

Izan ere, gurean 227. proposamenak aspaldidanik dauzka bai izena bai izana: Vasueneren legea delakoa, Kaliforniako erdalidunetz kezkatuta agertu zaizkigun askok bultzatuta eta babestuta. Honen emaitza aski ezaguna da: haur batzuek ez dute inolako eskubiderik ikastetxe publikoetan euskaraz ikasteko eta legearen arabera eskubide hori dutenei hamaika oztopo jartzen zale euren hautua praktikara eraman ez dezaten.

Hipokrisia da burura datorkidan lehenengo hitza eta irribarre maltzurra ezpainetara. Baina behingoz, eta koherentziarik eskatzen duen portaerari jarraikiz, bat egingo dut gazteleraleeekin: Kalifornian gaztelera! *Chicanos somos todos y por serlo nos quieren chingar.*

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Burlata:** Los Rossis eta Doctor Deseok kontzertua eskainiko dute bihar, 23:00etan, Gaztetxean. Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Irunberri:** Eider eta Oihane trikitilariekin dantzaldia izanen da etzi, 20:00etan.
- **Iruñea:** Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, Gayerre antzokian, 21:00etan. Sarrerak 2.000 pezeta balio du.
- **Barañain:** Igandea txarangak kontzertua bere CD berria aurkeztuko du bihar, 20:00etan, plazan.

ANTZERKIA

- **Garinoain:** Somhitre taldeak *Farsas medievales* lana aurkeztuko du gaur, plazan, 20:30etan.
- **Barañain:** Paraiso taldeak *Ni hartza naiz* lana taularatuko du datorren asteazkenean, 18:00etan, Udaletxeko Era-bilera Anitzeko Aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Corella:** Jose Manuel Esparzaren *Paisaiak* ikusteko aukera dago ekainaren 30ra arte Kultur Etxean.
- **Tafalla:** *Toroak eta toreroak* pintura eta eskultura erakusketa ikusteko aukera dago ekainaren 17ra arte Kultur Etxean. Boregan, Charela, Antonio Laita, Ismael Loperena, Antonio Loperena, John Otazu, Jose Ulibarrena eta Carlos Alonso lanak daude erakusketan.
- **Lizarr:** Jose Ortega eta Koldo Sebastianen lanak ikusteko aukera dago datorren ekainaren 28ra arte Gustavo de Maeztu museoan.

BESTELAKOAK

- **Irunberri:** Euskararen Eguna ospatuko da etzi. 11:00etan artisauek eta elikagaien erakusketa izanen da; 12:30etan ardimoztaileen erakusketa; eta 17:00etan kale animazioa Adardunak taldearekin.
- **Lizarr:** Jesus Iribarren idaz-

leak Jose Maria Iribarreni omenaldia hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan, Gustavo de Maeztu museoan.

- **Sakana:** Udako kanpaldiak antolatu dituzte Irurtzango Udalak eta Sakanako Kirol Batzordeak. Datorren uztailaren 6, 7, 8 eta 9an euskaraz izanen dira eta hurrengo lau

egunetan gaztelaniaz. Izen ematea eta informazioa 948-56-34-10 edo 60-04-12 telefonoetan.

- **Lizarr:** Udalak gazteentzako mural lehiaketa antolatu du. Lanak uztailaren 16a baino lehen igorri behar dira udaletxera. Informazio gehiago 948-54-82-24 telefonon.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Badakizu zergatik La Roncalesak Donostia aldera jotzen ote duen, La Veloz Sangüesina Zangozara joaten den artean?

EKI(a)LI(e)KUA

SUNGLASSES

Eguzki galdatan ere ez gara galduko

